

B

BARREN

Flamenkoa Siberiara eraman duen elgoibartarra

Natalia Mellado, abeslaria





ELGOIBAR ARREITURRE B.H.I. 2009/2010 IKASTURTEA

ELGOIBARKO INSTITUTUA

Elgoibar Arreiturre B.H.I.

Arregitorre 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net

www.elgoibarbhi.net



BATXILERREKO ESKAINTZA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak

Zientzia eta teknika

Teknologia (zikloetarako)

HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak

Humanitateak

AURREMATRIKULAKO DATAK: MAIATZAREN 4tik 8ra



EZKO IKASTURTEA



ORDUTEGIA

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kreditutzarekin ordaintzeko erraztasunak

Maiatzaren Lehena eta ditzosozko krisia

Denok dakigu Maiatzaren Lehena langileen nazioarteko eguna dela, askorentzat jai eguna, eta egutegiaren kapritxoz zubi polita izan daitekeena. Dena dela, komeni da gogoratzea jai egun horrek Chicagon duela jatorria. Zortzi orduko lan eguna lortzearen, 1886ko maiatzaren 1ean hasitako mobilizazio batzuen ondorioz exekutatu zituzten anarkista-sindikalista batzuen omenez ospatzen da mundu an. Paradoxikoki, Estatu Batuetan ez dute egun hori ospatzen.

Azken urteotan, errebindikazioak beste batzuen esku utzita, gehienontzat jai egun izan dira: lana bagenuen eta hilaren amaieran soldata ere bai. Gainera, Maiatzaren Leheneko zubian ondo baino hobeto pasatzeko, 3.000 eurora arteko kreditu azkarra erraz lortzeko aukera ere bazen.

Baina aurten gauzak aldatu egin dira, pertsona asko lanik gabe geratu dira azken hilabeteotan, eta familia askotan (gehienetan) kezka sortu da: nola ordaindu etxea, umeen eskolaz kanpokoak, arropa eta janaria, edota kotxea, iazko oporrak, jaunartzeak, telebista...

Aurtengo Maiatzaren Lehena desberdina izango da gehienontzat. Gure belarriak zoliago egongo dira handik eta hemendik bidalitako mezuak jasotzeko. Eta askotan, horrelako egunetan, langile eta enpresarien arteko konfrontazio giroa sortzen da.

Baina ez dugu ahaztu behar gure inguruko enpresari gehienak langile ere badirela, eta egoera latza sufritzen ari direla euren langile-lankideak kalean utzita eta makinak eta ondasunak bankuen eskuetan ikusita. Gure herrian soluzioa lankidetzatik etorri behar da, bat eginik joan behar dugu langileok eta enpresari-langile edo langile-enpresariok.

Mundu osoko arazoari ez diogu irtenbide globalik topatuko Elgoibarren, baina elkarri ahalik eta minik eta kalterik gutxien eraginda zulo honetatik irteterik izango bagenu, gaitz erdi.

Junkal Txurruka



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituzte gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Elkarri ahalik eta minik eta kalterik gutxien eraginda zulo honetatik irteterik izango bagenu, gaitz erdi”

**BETE DUZU ALBISTEAK
E-POSTAZ
JASOTZEKO HARPIDETZA?**

**EGUNERO
BIZPAHIRU
ALBISTE JASOKO
DITUZU!**

www.elgoiBARREN.net

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

 **ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA**

A close-up portrait of Jon Eugi, a man with dark hair, a mustache, and glasses, wearing a blue polo shirt. The background is a solid yellow color.

JON EUGI

IDAZLEA

**“Oso ondo
pasatu dut
abentura-nobela
idazten”**

Euskal Herriak itsasoarekin harreman handia izan du beti. Hala ere, itsasoari buruzko literatura oso urria izan da da euskaraz. Jon Eugi elgoibartarrak hutsune hori zertxobait beteko duen abentura-nobela eman berri du argitara. Ereinek kaleratuta, *Piraten Uhartea* liburua joan den astean jarri zuten liburu-dendetan salgai. Karibeko Tortuga ir-
lan pirata euskaldun batzuren gorabeherak kontatzen ditu. Fikziozko istorioa izan arren, gertaera historikoetan du oinarria. Gaztetxoentzako *Perzebal* sailean argitaratu badu ere, helduentzako ere kontakizun atsegina izan daiteke-
ela uste du. Eugik argitara eman duen lehenengo liburua izan da, baina, arrakastarik balu, beharbada bigarren za-
tiari ekingo lioke.

Uruzuno literatura taldean jardun zenuen lehen. Idazteko zaletasuna ordutik datorkizu?

Afizioa bertan sartu baino lehen ere banuen. Zaletasuna han kanalizatu nuen. Esperientzia polita izan zen, eta, berez, han argitaratu nituen lehenengo idatziak, aldizkaritxo batean, *Hamaika litera* izenekoan. Esperientzia oso polita izan zen.

Orain lehenengo liburua kaleratu berri duzu. Noiz hasi zinen lanean?

Serio 2005ean heldu nion. Pare bat urteko lana edo izan da. 2007. urte bukaera aldera amaitu nuen. Ordenagailuan artxiboa amaitutakoan, gustatzen zait paperean irakurtzea, akatsak-eta zuzentzeko. Baina arrazoi batzuk tarteko, 2008ra arte atzeratu zen irakurketa hori.

Lana nahiko mardula da, ezta? Ehun orrialde inguru dauzka.

Ia ehun. Mardula nik uste dut 200dik gorakoa dela. Nik, behintzat, oso ondo pasatu dut idazten, oso gozagarria izan da. Abenturarako nobela bat da, eta horrek erraztu egiten du idaztea: ez da gauza bera itsasoko abenturak kontatzea edo barne-gogoeta sakon bat. Irudimena beti askeago ibiltzen da. Nik oso ondo pasatu dut idazten, eta irakurleak hori pertzibitu badu, eta berak ere ondo pasatu baldin badu, niretzako primeran.

“Helduek ere momentu atsegina eta polita pasatu dezakete nobela irakurriz”

Eleberri batekin hastea ez da normalena...

Arruntena ez da nobela batekin irtetea plaza-ara. Lan konstantea da, pertsonaia batzuk daukazazu zaindu beharrekoak... Normalagoa izaten da ipuin solte batzuekin hastea, baina horrela izan da, eta gustura nago.

Ume eta gaztetxoentzako idatzi duzu, ezta?

Bai, bereziki gaztetxoentzako sail batean irten da, baina nire ustez adin mugarik ez da jarri behar. Helduek ere momentu atsegina eta polita pasatu dezakete nobela irakurriz.

Zer kontatzen da bertan?

Piraten liburua da, hori argi dago. Piraten

uharteak Tortuga uharteari egiten dio aipamena. Tortuga uhartea benetakoa da, eta piraten babesleku bat izan zen XVII. mendean. Han bildu ziren piratetek esperimendu nahiko interesgarria antolatu zuten, nire ustez. Gobernua gisako bat antolatu zuten, arau propioekin, eta erabakiak hartzen zituzten modu asanblearioan. Hori oso deigarria iruditu zitzaidan, oso polita, eta aprobeztatzea pentsatu nuen. Gertaera erreal hori hartu dut fikzioan erabiltzeko. Protagonistak pirata euskaldunak dira. Mutiko gazte batek bere lehenengo bidaia egiten du, balea-arrantzara. Hamaseigarren egunean ekaitzak jotzen du: itsas-ontzia txikituta, piraten itsas-ontzi batek jasotzen du, Juan Agirreandia piratak. Ziurgabetasun horretan, familiari zer gertatu zaion jakin gabe, piraterian murgiltzen da, gustatu egiten zaio, eta berak erabakitzen du pirata izatea. Gero bere kabuz ibiliko da.

Ondo dokumentatu behar izan duzu?

Pixka bat. Gertaera errealean oinarritzeak hori du. Datuak zaindu egin behar dituzu. Beharrezkoa nuena dokumentatu naiz. Ez gehiegi. Ez zait gehiegi gustatzen, baina beharrezkoa nuen.

Ondo etorriko zitzaizun...

Detalle historikoak zaindu egin behar dira. Egin kontu: XVII. mendean gertatutako istorioa da, eta Amerika deskubritu berri zegoen. Urte horietan leku berriak konkistatzen ibili ziren erresuma nagusiak. Jamaika ere konkistatu berria zuten ingelesek. Datu historikoekin detalle horiek zaindu egin behar dira. Bestalde, nabigazioaz ez dakit ezer, eta hori kosta egin zait. Ez dut sakondu gehiegi, baina behar nuena jaso dut, nobelan sartzeko.

Bete-betean sartu zara XVII. mendean.

Erresuma nagusiak kontinente berri horretako aberastasunak harrapatzea joan ziren, argi eta garbi. Horrek bultzatu zuen pirateria Karibe aldean. Pirateriaren urrezko aroa izan zen.

Umetan piraten ipuinak irakurtzen zenituen?

Bai, baina gehiago filmak ikusi. Gero oroimean gelditzen dira. Erreferentzia bat Robert Louis Stevenson *Altxorraren uhartea* liburua izan da niretzat, hori irakurria nuen.

Zure nobelan pirata euskaldunak agertzen dira. Egon ziren? Bada erreferentziarik?

Egon ziren: Pedro Agirre *Campanario*, donostiakoa; Suhigaraitipi, Baionakoa; Ichetebe Pellot hendaiaakoa; Michelle *Le Basque*, Donibane Lohizuneko; eta Pedro Larraon-

do, bilbokoa. Pedro Agirre kortsarioa izan zen, baina bere kaxa nahikoa ibili izan zen.

Nolakoa izan ziren piratak?

Hamaika izan ziren. Baina pirateria idealizatu ta dago. Egia da inor ez dela pirata afizioz sartzten, beharrak eraginda baizik. Piratak pobreak izaten ziren, baztertutako jendea edo justiziak lehorrean bilatzen zituenak. Zori hobea baten bila joaten ziren. Errealitatea gordin zena.

“Pirateria idealizatuta dago. Inor ez zen afizioz sartzten, beharrak eraginda baizik”

Zer kritika izan du liburua?

Argialetxean, harrera oso ona izan da. Editoreak esan zidan abentura asko zeuzkala liburua, ondo kontatuta zegoela, eta gehiagoren gogoarekin gelditu zela. Asko poztu nintzen. Irten berria denez, oraindik jende askok ez du irakurri. Anaiak esan dit oso atsegina dela irakurtzeko, baina anaia da. *Berria*-n erreferentzia egin zioten, eta han jartzen zuen euskaraz lehen nobela zela piratei buruzkoa. Asko poztu nintzen, baina ez dakit hala izango den. Euskaraz ez da asko idatzi itsasoari buruz...

Bitxia da, Euskal Herriaren historia itsasoarekin oso lotuta dago eta.

Idazleek hori komentatu dute, eta *Piraten uhartea*-k ekarpen txikia egiten badu, ondo.

Pozik zaude liburuko ilustrazioekin?

Azala mordoa gustatzen zait: Juan Luis Landak egin du. Nik uste dut amu polita dela liburua erakartzeko.

Gerora begira zer asmo duzu?

Posible bada, idazten jarraitzeko asmoa daukat. Zer irtingo den ez dakit ziur. Akaso, honen jarraipena idatziko dut, baina jakin nahi dut zer harrera daukan. Batez ere gustatuko litzaidake ikastetxeetara joan eta gaztetxoekin aurrez aurreko harreman hori eduki eta eurak kontatzea euren iritzi zuzena. Ikusiko dugu. Ez bada hori, beste zozer izango da.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

XVI. J. Gurrutxaga krosa

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den igandean, apirilaren 26an, izandako XVI J. Gurrutxaga Krosa antolatzen lagundu zuten guztiei: Mekanosa, Bolintxo, Lete, Txiriboga, Muebles Anton, Lanbroa, Castrillejo estankoa, Fadedek ileapaindegia, Iturri taberna, Jai Alai taberna, Usua, Uzuri Optika, Urkiola, Pol-Pol, Salento, Ize liburudenda, Orbea, Ipintza, Arkauz burdindegia, Armueta Harategia, Astigarraga Kirolak, Aterpe, Azpeleta, Elena Herrero, Etxekit, Beitia-Arriola, Xigortze, Zurich Aseguruak, Urnabitza Aseguruak, Xagua taberna, Ibai Ondo, Julio Bueno, Kaia, Muruamendiaraz gozotegia, Antxustegi zeramikak, Osoro zapatadenda, Garate jantzi denda, Iriondo Kirolak, Iriondo taberna, King-Kong kafetegia, Mugape, S.A, Sara denda, Harzubi jatetxea, Lombok, Goar aholkularitza, Josu bitxidenda, Arauri lurrindegia, Hair ileapaindegia, Skandalo, Coviran, Leku bideo-kluba, Estudio PS XXI, Arrieta jantzidenda, Apraiz parafarmazia, Fotero okindegia, Ecenarro, Karkizano, Maite gozotegia, Maidagan jantzidenda, Kontxi, Eizaguirre okindegia, Gabiola aholkularitza, Doña Mercedes okindegia, Kala loradenda, MG Etxea burdindegia, Aranburu bitxitxegia, Landa harategia, Landa taberna, Kemen belardenda, Luvik oinetakoak, Ugari, Patxi Harategia, Ferpi modak, Confecciones Ion, Gabi jatetxea, Leigar, Ipintza, Alboan inbiliaria, Estudios Arrillaga, Gabilondo higiezin agentzia, Lizzy, El Gautxo, AJ ileapaintzaleak, Arbeola inbiliaria, Txuri-Beltz ta-

berna, Lau, Iratxo-Rock taberna, Sua taberna, Egotoki Elkartea, Lagun Taldea txirrindulari Elkartea, *El Diario Vasco* eta batez ere Elgoibarko Udala, Alzolako Urak, Beristain edari-banatzalea, Eroski, Netto, Udal Kirol Patronatua, Goiti, Opel Hyundai eta Kutxari. Bestalde, eskerrik beroenak parte hartu zuten neska-mutilei eta laguntzen egon ziren gurasoei.

Datorren urtean, apirilaren 25ean, egingo den XVII. J. Gurrutxaga Krosa antolatzen laguntzeko prest egongo zarete-lakoan, agur bero bat.

J. Gurrutxaga Kros Batzordea ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 · 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Asier Orbea, Oier Narbaiza, Edurne Burgaña PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILERAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegui, Sugar Etxaniz, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.750 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Eva
García

Ekaitzaren ostean ez-
ztialdia datorrela esaten
dute. Kasu honetan, abenturaren

ostean, egunerotasuna berriro. Egia esanda, inoiz ez zait kalte-
garria iruditu, eta betidanik nahiko lasai sentitu naiz nire bizimodu
txikia eraikitzen. Baina ikaragarri eragozten nauen zeozer dago; irat-
zargailua. Guztiok izendatzaile txiki hori partekatzen dugu gure erruti-
nan: aberatsek edo behartsuek, langileek edo alferrek, bankariek edo
igeltseroek... ez dio ardurarik. Gure borondatearen kontra egiten du-
gun egintza automatiko horrekin, gure betebeharrak betzen ari garela
uste dugu! Baina, posible ote da hori?

Munstro horrek, gure bizitzaren egun guztietan, soldaduak bezala
esnatzen gaitu, eta urteak pasata, konzentrazio esparru baten mo-
duan iratzartzeak normaltasunarekin hartu dugu. Xelebrea, ezta? Bai-
na zeinek gorrotatzen du gehiago? Guk iratzargailua, ala iratzargailuak
gu?

“Baietz objektu gorrotatuena iratzargailua izan”

Nola sentitzen zara benetan atsegin duzun amets batean zaude-
nean, eta egunaren lehenengo erantzun beharrak gogorarazten dizki-
zun adar zaratatsu horrek zure errealitatea bapatean guztiz hausten
duenean? Lasaitasun eta erosotasunez betetako errealitate baketsu
batetik, larritasun eta estres betetako beste batera mugitzen zarene-
an? Eta hori dena trantsizio momentu bat eduki barik! Zenbatetan eu-
tsi diogu amasari? Zenbatetan sentitu dugu gure bihotza husten?

Inkesta bat egin, eta objektu gorrotatuenetarikoa iratzargailua
baietz izan! Eta hala ere, alarma lerdo hori egunero programatzean,
haren morroiak bihurtu gara.



Miriam
García

Hemen ere, abenturaren barruan egune-
rotasunerako tartetxo bat aurkitu dut. Ez da-
kit horregatik izango den, ala kasualitate hutsa
den, baina azken egun hauetan iratzargailuaren
gaia behin baino gehiagotan azaldu zaigu gure el-
karrizketetan.

Batzuk oihanaren erdian itsasoa faltan botatzen dutela eta
hondartza gogorarazten dien musika batekin esnatzen dira.
Beste batzuk, berriz, goizeko zazpitan puntualki beraien etxe
aurretik pasatzen den zortzi urteko gelatina saltzaile baten
oihuekin jaikitzen dira egunero: “*Gelatiiiiinaaaaa de paaataaa-
aa!!!!*” (ume honen esnatzeko era zein den ez dakigu oraindik).

“Hobe iratzargailuarekin harreman onargarria bazenu”

Beraz, arrazoia daukazu: iratzargailua ia mundu osoak sufritzen
duen gaitz hedatu bat da. Iparraldean zein hegoaldean inor gutxi-
kortzen du objektu gorrotatu honen atzaparretatik ihes egiterik.

Baina ondo ikusita, hobe litzateke iratzargailuarekin harre-
man onargarri bat izatea lortuko bagenu, egunero-egunero ia
bizitza osoan alboan izango baitugu.

Beharbada, pizgarriren bat bilatzea besterik ez da, eta
abenturaren barruan egunerotasuna aurkitu dezakegun bezala,
egunerotasunak ere abenturarako gune bat gorde dezakeela
pentsa dezakegu. Horrela, iratzargailuak larritasun eta estresez
betetako gure betebeharrak horietara baino zeozer hobeagora ere
eramaten gaituela konturatuko ginateteke.

Azken finean, hasi iratzargailuarekin hasten da baina –behin
esan zidaten bezala– amaitu, inork ez daki nola amaituko den
eguna.



Elgoibarko Udala



Langileen Nazioarteko Eguna izango da bihar, barixakua.

Modu berezian ospatzen duzu Maiatzaren Lehena?



Dani Larrea
49 urte, euskara teknikaria

Egun berezia da, baina ez dut ospakizun berezirik egiten. Orain dela urte batzuk manifestazioetara joaten nintzen, baina orain herritik kanpo joan behar da horrelako ekin-tzetan parte hartzeko, eta ez naiz joaten. Eguraldi ona egiten badu, eguna aprobetxatuko dut.



Josune Etxeberria
22 urte, ileapaintzailea

Ez. Sekula ez dut ospatu Maiatzaren Lehena, niretzako egutegian dagoen jai egun bat gehiago besterik ez da, eta ez dauka inolako esanahi berezirik. Nahi duenak badauka aldarrikapen edo manifestazioetan parte hartzeko aukera, baina ni ez naiz joaten.



Asterio Perez
42 urte, arotza

Ez. Autonomia naiz, eta, ahal badut behintzat, ez dut jairik hartuko, lan egingo dut. Hala ere, egun horretan jende gehienak jai egiten du, eta neuk ere ez dut lanik egiten. Niretzako ohiko jai egun bat da, sekula ez dut modu berezian ospatu Langilearen Eguna.



Iker Tapia
33 urte, mekanikoa

Ez. Niretzako Maiatzaren Lehena jai egun bat gehiago da, eta ez dugu ezer berezirik egiten. Etxekoekin egoteko aprobetxatuko dut eguna: apur bat paseatu eta lasai-lasai egongo gara. Erreibindikazioak egiteko aukera maiatzaren 21ean edukiko dugu.

CORDON VILARCAHO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estakura
Zolak-estakura
Lakaduz: egur, aluminio, PVC,
Pintura onkorta

San Roke, 7 behean
Pai, Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 570

ECANTZADOS
S.COOP
BUKATU.

OLASO Poligono Industrialak - Olasope kale, 6
66 atea - Telefonoa: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98
20870 ELGOIBAR
E-posta: bukafu@bukafu.es - Htt: www.bukafu.es



I. URTEURRENA

JOSE LUIS LASCURAIN ECHAVE

2008ko apirilaren 27an hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, maiatzaren 2an, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.






Realaren bandera jarri dute Mintxetan, eta CD Elgoibarrena falta da: “Elgoibarkoak eta Realzaleak gara, eta alde batetik ondo iruditzen zaigu Mintxetan talde txuri-urdinaren bandera jartzea ehungarren urteurrenean, baina gure ustez, CD Elgoibarrena ere jarri beharko litzateke. Azken batean, Real Gipuzkoako taldea da, baina herrikoa Haundi da. Aurten, gainera, oso denboraldi ona egiten ari da, eta polita izango litzateke taldearen bandera Mintxetan ikustea”. ←



San Bartolome kaleko bizilagun batzuk higuinduta daude portalean aurkitzen dituzten *opariekin*: “Txakur batek portaleko ate aurrean, alfonbratxoaren gainean, txiza eta kaka egiteko ohitura aldrebesa hartu du. Azken lau hilabeteetan goizero-goizero egiten dugu topo lau hankakoaren *oparixoe*kin, txakurra bera nolakoa den ikusteko aukerarik ez badugu izan ere. Txakurrak ez ditu lerrook irakurriko, jabeak beharbada bai. Hortaz, ardura gehiago izateko eskatu nahi genioke; erakutsi diezaiola non egin behar dituen beharrak edo bestela berak garbitu dezala. Dagoeneko bi alfonbratxo bota behar izan ditugu zaborretara, eta portal guztian zabaltzen den usaina jasanezina da”.

Lur azpiko zabor edukiontziak oso azkar betetzen dira: “Zabor edukiontziak lur azpian sartzea ideia oso ona da, garbia eta eroso, baina nire ustez azkarregi betetzen dira. Ez dakit lehengo edukiontziak baino txikiagoak diren, ala ez dituzten behar beste husten, baina askotan gertatu izan zait zaborra botatzera joan eta argi gorria piztuta aurkitzea. Arduradunek kontu handiagoa izan beharko lukete gai honekin, bestela, zaborra eta kartoia, batez ere, lurtean botata geratzen dira-eta”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12



MONDRAGON UNIBERTSITATEA



UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

MAIATZAK 7 - 17:30 osteguna | **MAIATZAK 21 - 17:30** osteguna *2.zikloa*
ARRASATE-MONDRAGÓN AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@nps.mondragon.edu

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MAIATZAK 14 - 18:00 osteguna
OÑATI AULA MAGNA Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MAIATZAK 7 - 18:00 osteguna *2.zikloa* | **MAIATZAK 21 - 18:00** osteguna
IRUN AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MAIATZAK 11 - 11:00 larunbata *2.zikloa*
ESKORITATZA AULA MAGNA Tel.: 943 71 41 57 // sairera@huhezi.mondragon.edu

Alcortako forjak lotura eten du Mahle multinazionalarekin eta ibilbide berri bati ekin dio

2008ko ekitaldia 32 milioi euroko fakturazioarekin itxi zuen Elgoibarko enpresak

Alcorta Forging Group enpresa elgoibartarrak Mahle multinazionalarekin lotura eten du, eta etapa berri bati ekiteko prest dagoela adierazi dute arduradunek. Alemaniako multinazionalak Alcortako akzioen %50 zeukan orain arte, eta aurrerantzean, Elgoibarko enpresak hartuko du dena bere gain. Gaur egun, 170 langile ditu, eta akziodunen %100 bertakoa da. Taldeko forja-enpresek motor bielak bakarrik fabrikatzeko erabaki estrategikoa hartu zuen Mahle multinazionalak. Alcortako produkzioaren herena bielak direnez, multinazionalari bere partaidetza erostea adostu zuten elgoibartarrek 2007an. Akordioaren ondorioz, eta trantsiziorako urtebete eta gero, Alcorta-Brockhaus izena galdu eta Alcorta Forging Group izenarekin egingo du aurrera.

32 milioi euroko fakturazioa

Enpresaren egitura hiru negozio unitatetan zatitzen da: karreroziako piezak, ihes-sistamarako eta motorrerako piezak eta segurtasunerako osagaiak. Enpresako arduradunen arabera, 2008ko ekitaldia 32 milioi euroko fakturazioarekin itxi zuten, aurreko ekitaldian baino %7 gehiago.



Urnietako zaldia garaile azken zapatuko ferriako zaldi-proban



Urnietako zaldiak irabazi zuen Eibarko Urkiaga baserriko zaldiaren kontrako dema, zapatuko ferian. Eibarko zaldiak hasi zuen proba, eta lan ona egin bazuen ere, Urnietako Azkonabieta baserriko zaldiak marka hori berdindu eta gainditu egin zuen, 96 plaza eta zinta batekin, hogeiturotu denboran; eibartarrak, berriz, 88 plazako marka egin zuen. Euria egin arren, ikusmin handia sortu zuen ekitaldiak, eta herritar asko bildu ziren Nafarroa Plazan, zaldi proba bertatik bertara ikusteko.

Aldarrikapenak egin zituzten Lan Osasunaren Egunean

Apirilaren 28a Lan Osasunaren Nazioarteko eguna izan zen eta, ELA, LAB eta CCOO sindikatuek hainbat aldarrikapen ekitaldi antolatu zituzten Euskal Herrian. Elgoibarren, besteak beste, auto-karabana izan zen goizean, eta arratsaldeko 19:00etan kontzentrazioa egin zuten Plaza Handian, LAB sindikatuak deituta, "osasuna eta bizia ere lapurtzen dizkigute" lemapean. Urtero Euskal Herrian 135.000 lan istripu baino gehiago gertatzen direla, eta 2008an 112 lagun hil zirela lanean salatu zuten.



Izena **Mikel Ibañez**



Mikel Ibañez preso elgoibartarra epaitu zuten joan zen egue-
nean, apirilak 23, 1988. urtean
Patxi Zabaleta elgoibartarraren
hilketan parte hartu zuen ala ez,
eta izatekotan parte hartze hori
zenbaterainokoa izan zen argi-
tzeko. Egun bakarreko epaiketa
izan zen, eta Amnistiaren Aldeko
Mugimenduko kideen arabera,
sententzia hilabete pare baten
buruan aterako da. Mikel Ibañez
osasun egoera larrian dago, eta
2007ko martxotik dago preso.

Zenbakia **29.000**

Elgoibarko Udalak 29.000 euro erabiliko ditu Ermuaran-Sallobente eta Azkue-San Roke auzoei buruzko ikerketa turistikoa egiteko. Vilau Enpresak egingo du lan hori, eta horri esker, ingurune horiek aisialdi eta turismorako dituzten aukerak ezagutuko ditu Udalak.

Irudia **Biktimei omenaldia**

ETA eta Komando Autonomo Antikapitalistek hildako biktimak gogoratzeko errekonozimendu ekitaldia egin zen zapatuan, apirilak 25, bigarren urtez jarraian. Biktimen oroimenez, hamabost minutuko isilunea egin zuten Udaletxe aurrean, eta ondoren, Jose Expositoren eta Patxi Zabaletaren alargunek lore sorta bat laga zuten Gernikako Arbolaren landarearen ondoan, Giza Eskubideen parkean. Jaime Arreseren eta Angel Berazadiren senideak ere egon ziren bertan.



Baratzak balkoietan ikastaroa maiatzean

Debemen elkarteak Baratzak balkoietan ikastaroa eskainiko du maiatzaren 19an hasita. Hiru orduko lau saio izango dira guztira, eta Manuel Esparza izango da irakaslea. Ikastaroa Kultur Etxean izango da. Interesatuak maiatzaren 15a baino lehen eman beharko dute izena. Informazio gehiago eskuratzeko, 943 744 067 telefonora deitu daiteke.

1953ko eta 1954ko kinto ospakizunak

1953an eta 1954an jaiotako elgoibartarrek kinto ospakizunak egingo dituzte datozen hilabeteetan. 1953an jaiotakoen bazkaria maiatzaren 9an izango da, Gabi jaietxean. Interesatuak, Castrillejo estankotan eman dezakete izena, edo Carlos Gonzalez Elgoibarko estazioko arduradun ohiarekin jarri daitezke harremanetan. 1954an jaiotakoek, bestalde, ekainaren 13an egingo dute kinto bazkaria. Interesatuak 50 euro sartu beharko dituzte, Euskadiko Kutzako ondorengo kontu korrante zenbakian: 3035 0007 21 0071056285.

Udal Plenoa gaur arratsaldean

Apirileko osoko bilkura egingo du Udalak gaur, apirilak 30. Besteak beste, 2008ko aurrekontuaren likidazioaren berri emango dute, eta Aralar alderdiak presoan egoerari buruzko mozioa aurkeztuko du. Udal Plenoa arratsaldeko 18:30ean hasiko da.

Arkitekto teknikoak behar da udaletxerako

Elgoibarko Udalak arkitekto tekniko bat kontratatu behar du. Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 2an amaituko da. Deialdiaren arauak eta eskabide orria www.elgoibar.org web gunean eskuratu daitezke. Informazio gehiago 943 741 050 telefonoan.

Natalia Mellado

Elgoibar atzean lagata, Madril aldera joan zen Natalia Mellado abeslaria orain dela bederatzi urte, eta, ordutik, bere izena oso ezaguna egin da, Espainian batez ere. Raphael edo Manolo Escobar bezalako artista ezagunen ondoren jardun du elgoibartarrak han eta hemen kontzertuak eskaintzen, eta orain beste pauso garrantzitsu bat eman du ibilbide artistikoan: Espainiako mugak zeharkatu eta Errusia aldean jardun du bere flamenko konpainiarekin *Pasion* izeneko lana aurkezten. Lurralde hotza izan arren, harrera beroa egin dietela azaldu du Nataliak.

Elkarrizketa osorik irakurtzeko: www.elgoiBARREN.net

Ainhoa Andonegi

“Umetako nire ametsa bete da, eta amets horretatik bizi naiz, gainera.”

Zelakoa izan da Errusia eta Siberiako bira?

Oso ondo, oso polita izan da. Gogorra izan da, oso ibilbide luzeak egin behar izaten genituelako ikuskizun batetik bestera. Egun libreak aprobetxatzen genituen bidaiatzeko, eta askotan bi egun baino gehiago pasatzen genituen Transiberianoan. Trenez bidaiatu dugu batez ere, baina errepidean ere ibili gara, eta hango errepideak ez dira hemengo-

ak bezalakoak, askoz eskasagoak dira. Neke hori guztia, antzokiak jendez gainezka ikus- tean ahaztu egiten zitzaizgun.

Jende asko ibili da zuen ikuskizunetan?

Bai, batez beste, 1.500-2.000 lagun izan ditugu ikuskizun ba-

koitzean. Antzoki guztiak bete egiten ziren gu ikusteko, eta,

gainera, txalo mordoa jasotzen genituen. Emanaldia amaitu ondoren, ikusleek ez zioten txalo egiteari lagatzen, eta hiruzpalau aldiz irten behar izaten

ginen taula gainera, jendeari eskerrak ematen. Hunkigarria izan da.

Lurraldea hotza da, baina nolakoak dira bertako bizilagunak?

Ikusleen berotasun faltarik ez dugu eduki, oso ondo hartu gaituzte. Hala ere, izakera gogorrekoak direla konturatu gara, baina ez dugu arazorik izan. Hamazortzi eguneko bira izan da, eta toki guztietan harrera bikaina egin digute.

Errusian ezagutzen dute flamenkoa?

Baietz esango nuke. Gure aurretik, musika flamenkoa egiten duten hainbat artista ere izan dira Errusia aldean, La Truco esate baterako. Hala ere, krisitin gehiago espero zituztela uste dut. Bestalde, inprobisazioaz galdetzen zidaten emanaldi guztietan. Euren ustez, asko inprobisatzen genuen, eta ea koordinazio hori nola lortzen genuen galdetzen zidaten. Gure ikuskizunean, baina, oso inprobisazio gutxi dago, gidoi baten gainean egiten dugu lan, eta amaieran bakarrik inprobisatzen dute dantzariak, eta oso gutxi, gainera.

Zein da zure lana ikuskizun horren bamean?

Nik abestu egiten dut. Dantza flamenkoko pauso gutxi batzuk egiten ditut, baina nire lana abestea da. Bai dantzarako, eta baita ikusleentzako ere. Sentimendu handiko letrak izaten dira normalean, eta oraingo honetan, nire herrialdearen aipamena egin nuen esaldi batzuetan: “*Donostia me vio nacer, la Concha escuchó mi canto y a los montes de mi tierra les susurraba mi llanto*”. Emozionatu egin nintzen, eta negar ere egin nuen.

Koplak kantatzen hasi zinen, eta orain musika flamenkoan zabilta. Noiztik duzu gogoko musika flamenkoa?

Niri sekula ez zait musika flamenkoa gustatu. Madrilera iritsi nintzene-





Errusiako biran erabili duten kartela, eta han ateratako hainbat argazki.

an, nire bikoteak animatu ninduen flamenkoaren munduan barneratzeko. Poliki-poliki hasi nintzen ikasten, eta flamenkoaren historia irakurtzen. Azkenean barneraino harrapatu nau, eta dagoeneko lau urte daramatzat flamenkoarekin lanean. Hala ere, tarteka sartzen dut koplak apur bat.

Gaztea zara oraindik, baina dagoeneko ibilbide luzea daukazu.

Nik 33 urte ditut, baina oso gazte hasi nintzen lanean. 11 urterekin sartu nintzen tunan, eta 15-16 urte nituenerako musikan erabat sartuta nengoan. 17 urterekin hasi nintzen Madril aldera bidaiatzen. Lau urte pasatu nituen horrela, eta orain dela bederatzita urte erabaki nuen Madril bizi behar nuela.

Euskal Herriaren falta sentitzen duzu?

Bai, izugarri gustatuko litzaidake Euskal Herrian lan egitea, baina hemen ez daukagu publikorik. Andaluzia, Valentzia, Murtzia eta Madril aldean daukat lana. Ohitu naiz ingurune horretara, eta gustura bizi naiz han, baina nire herrialdearen falta sentitzen dut. Aspaldi ez naiz joan Elgoibarrera, eta gero eta gutxiago etortzen naiz, gainera. Gehiagotan etortzea gustatuko litzaidake.

Aurrera begira, zeintzuk dira zure asmoak?

Abenduan seguruenik Errusia aldera itzuliko gara, eta azaroan, akaso, Ekuadorrera joango gara. Epe laburrera, bestalde, lanez gainezka ibili-

ko gara: Sevillan apirileko feria hasiko da oraintxe, eta ia egunero eskainiko ditugu emanaldiak. Egia esanda, urte osoan egiten dugu lana, eta oporrak hartzeko modu bakarra lanen bati ezetz esatea da.

Noiz hartzen du atsedena Natalia Melladok?

Ohera sartzen naizenean! Askotan berandu erretiratzen naiz, baina orduantxe deskantsatzen dut.

Emakumea, langilea eta ama izatea bateragarriak dira?

Zaila da. Orain arte ez dut ama izateko aukerarik izan, baina izugarri gustatuko litzaidake. 33 urte ditut, eta dagoeneko bizipen asko izan ditut. Umea etortzen bada, ondo hartuko dugu. Ez diot familiariko egingo nire lanbideagatik. Lana eta familia bereiztu egin behar dira, eta bizitzako etapa bakoitzean tokatzen dena egin behar da.

Norekin egingo zenuke gustura bira bat?

Gustura nago nire konpainiarekin lanean. Hasieran beste batzuekin lan egitea ondo dago, erosoagoa da, baina orain niretzako egingen dut lan, eta horrek poztasun handiagoa eskaintzen du.

Eta zure musika zein herrialdetara eramango zenuke?

Indiara joatea gustatuko litzaidake. Hango ume bat daukat apadrinatuta, eta herrialdea ezagutzeaz aparte, bera ezagutu nahiko nuke.

“Izugarri gustatuko litzaidake Euskal Herrian lan egitea, baina hemen ez daukagu publikorik”





Etxebizitza

gehigarria



Eraikuntzaren geldiuneak ez du esan nahi etxeak prezioz jaisten ari direnik, eusten ari direla baizik, hau da, orain dela sei hilabete 200.000 balio zuenak, orain ere 200.000 balio duela, alegia.

Etxea erosi nahi denean, beste edozer bezala, gehien gustatzen dena erosi nahi izaten da, eta baldintza onenak dituen hipotekarekin; azken urteotan, eskaera handia izanik, oso zaila izan da gustuko etxea bilatzea, eta inoiz ez zen preziorik onena lortzen.

Gaur egun, ordea, prezioak egonkoritu dira eta, beraz, aukera onak aurkitu ditzakegu. Etxea erosi nahi duen jende gutxi dago, edo beste modu batera esanda, eskaintza handiegia dago eta eskaera murrizta. Gainera, bankuek hipoteka baldintza hobeak eskaintzen dituzte bezeroak lortzeko. Gehigarri berezi honetan, eskaintza desberdinak aurkituko dituzue, animatu!

Santa Klararen irudia eraberrituko dugu

BOST ARRAZOI ETXEBIZITZA EROSTEKO

Finantza krisia dela eta, etxebizitzaren salmentak behera egin badu ere, orain arte etxea erosi ezinik egon diren batzuek etxea erosteko aukera aztertzeari ekin diote, prezioek behera egin dutelako eta interes tipoak jaitsi egin direlako.

1. Ondasunen prezioak arrazoizkoagoak dira: etxebizitzaren prezioak %20 egin du behera. G-14 inmobiliaria taldearen arabera, beherakada nabarmena izan denez, gehiago jaisteko marjinik ez dago. Prezioen jaitsiera moteltzen ari da, eta aditu batzuen ustez, ez da asko itxarotea komeni.

2. Aukera zabala dago: etxebizitzak saltzeko arazoek stockak handitu dituzte, eta saltzaile batzuk etsi-etsian dihardute. *Don't Rent, Buy! (Ez alokatu, erosi!)* liburua idatzi zuen Edie Fadelen iritziz, etxebizitza erosteko ez da merkatua lur jota gelditu arte itxaron behar, orduan zaila izango baita prezio hobea eskuratzea. Kontuan izan beharra dago obra asko geldirik daudela, hasi gabe, eta horiek guztiak batera jarriz gero sortutako stocka gehiegizkoa litzateke.

3. Promotoreak deskontuak eskaintzen ari dira. Kanpaina bereziak egiten ari dira. Kasu batzuetan, saltzaileak prezioak negoziatzen ari dira.

4. Hipoteken interes tipoak oso txikiak dira. Ondorioz, hileko kuotek nabarmen egin dute behera.

5. Gobernuaren laguntzak. Beatriz Corredor Etxebizitza ministroaren esanetan, familia handiek lehentasuna izango dute etxebizitzarako laguntzak jasotzeko. Era berean, etxebizitza eskuratzeke baldintzak leunagoak izango dira.

Ekonomia eta finantza krisia izan arren, oso harro gaudela adierazi nahi dugu, Santa Klarako bigarren fasearen komertzializazioari ekin diogulako. Promozioak zortzi etxebizitza dauzka, bi eta hiru logelatakoak. Elgoibarko alde zaharretik oso gertu dago, eta zonaldearen irudia eraberritu egingo du. Promozio berri hau bat dator GRUPO EIBAR taldeak herrian martxan dituen besteekin.

Eskerrik asko gudan konfiantza izateagatik!!! Zuek gabe ezinezkoa litzateke honelakorik gauzatea.



INMOBILIARIA ESTUDIO PS XXI

INMOBILIARIA ZERBITZUAK ETA BARNEKO ARKITEKTURA

Tel./Faxa: 943 742 306

- ▲ 141.000 eurotik aurrera Elgoibar, Eibar, Ermua, Elgeta, Soraluze, Deba, Mendaro, Mutriku, Azkoitia eta Donostian etxebizitzaren salmenta dugu.
- ▲ Eibar eta Mendaron pabiloi industrialak saltzen ditugu eta Bergara eta Mendaron alokatu ere bai.
- ▲ Landa-lursailak Elgoibar eta Mendaron
- ▲ Baserriak Soraluze, Elgoibar eta Beizaman.



grupo eibar
inmobiliario

San Frantzisko kalea, 44 behea
Tel.: 943 748 002 / 689 236 537

SANTA KLARA 1. FASEA

- Azken etxebizitzak 192.000 eurotik hasita.
- 2009ko abenduan giltza banaketa.

SANTA KLARA 2. FASEA

- Hurrengo eraikuntzak 8 etxebizitza izango ditu.
- 210.000 eurotik hasita.




grupo eibar
inmobiliario

San Frantzisko kalea, 44 behea
Tel.: 943 748 002 / 689 236 537

ELGOIBAR - URRUNIBAR

- 2-3 logelako etxebizitzak.
- 171.000 eurotik hasita.
- Lehenengo faseari ekingo diogu.



**Elgoibar: Errosario kalea, 35. zbkia.
Kalitatezko Etxebizitzak.**



Hondartza 3-4, Behea. - 20820 DEBA - GIPUZKOA
Tel./Faxa: 943 192 249 - Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarminaeraiketak.com - www.sagarminaeraiketak.com

- Etxegintza eta Erreforma Lanak
- Txalet eta Baserriak
- Teilatuak, Fatxadak, e.a...
- Gremioen arteko Koodinazioa
- 35 urtetako esperientzia

**ETXEBIZITZAK ERAIKITZEN
SANTA KLARA, 13. zbkia. (Elgoibar)**

BERRIA!!



Etxebizitza obra bertatik ikusteko aukera paregabea

- Duplexa terrazarekin
- 2 eta 3 logelako etxebizitzak
- Garaje eta trastelekuak



INFORMAZIOA eta SALMENTA: Pedro Muguruza Etorbidea, 9 - Behea (Elgoibar) - Tif.: 615 758 480

Mela-mela eta alai-alai

Jose Gurrutxaga krosa egin zuten joan den domekan, apirilaren 26an, eta eguraldiak batere lagundu ez bazuen ere, jende mordo batek hartu zuen parte lasterketan. Adinaren arabera banatuta, lau mailatan egin zuten lasterka antxintxikariek; 517 guztira. Marka onak eta ez hain onak egin zituzten parte-hartzaileek; eta guztiek amaitu zuten mela-mela eginda, baina alai. Argazki gehiago eta sailkapena, www.ElgoiBAREN.net helbidean.



Ibon Gabilondok bosgarren postua lortu du Estatu Batuetako duatloian

Enumclawko proban parte hartu du Urgazikoak

Urgazi Triatloi Taldeko Ibon Gabilondo Estatu Batuetan bizi da lan kontuengatik, baina kirola zainetan daramala erakutsi du elgoibartarrak. Izan ere, etxetik urrun egon arren Enumclawko duatloian hartu du parte, eta bosgarren postua lortu du gainera.

“Lasterketa gogorra”

Gabilondok parte hartu zuen duatloia Washington estatuko hiriburutik, Seattle-etik, ordubetera dagoen Enumclaw herri txikian egin zen: 8,5 kilometro antxintxika, 48 kilometro bizikletan eta 6,5 antxintxika. Michael Gordonek irabazi zuen (2:09:28) lasterketa, eta Ibon Gabilondok bosgarren izatea lortu zuen 2:17:22 denborarekin.

Lasterketa gogorra izan zela azaldu du triatloirariak, eta han eta hemengo proben artean ikusi dituen desberdintasunak ere nabarmendu ditu: “Atentzioa ematen duen gauza bat da hemen kirola edade eta genero guztietako jendeak egiten duela. Oso zabaldua dago”.



Kirol Udalekuetan izena emateko epea hilaren 4an hasiko da

Kirol Udalekuetan parte hartu nahi dutenek maiatzaren 4tik hilaren 29ra izena eman beharko dute. Aurten, gainera, lehenengo eta bigarren mailako hurrek ere parte hartu ahal izango dute.

Ekainaren 29tik uztailaren 24ra arte iraugo dute udalekuek, 9:30etik 12:30era. Hainbat kirol egingo dituzte hurrek egun horietan. Parte hartzeko, bazkideek 60 euro ordaindu behar dituzte, eta ez direnek 65 euro.

Tenis txapelketa antolatu dute hamalau urtetik gorakoentzako

Elgoibarko 40-15 tenis elkarteak txapelketa antolatu du aurten ere. Hamalau urtetik gorako edozeinek parte hartu dezake. Izena emateko azken eguna maiatzaren 8a da. Hamabi euro ordaindu behar dira.

Bi fase edukiko ditu tenis txapelketak: taldeko fasea eta kanporaketak. Partidak, hiru setera jokatu dira. Izena emateko, deitu ondoko telefono zenbakietara: 637 990 159 edo 696 577 872.

EMAITZAK

FUTBOLA

Leioa 1 – Haundi 1 (3. maila)
Elgoibar 1 – Zestoa 0 (1. erreg.)
Ilintxa 0 – Elgoibar 0 (Jub.)
Añorga 5 – Elgoibar 2 (Kad.)
Ekintza 0 – Elgoibar 2 (Inf.)
Elgoibar 1 – Baskonia 0 (Txik.)
Amaiak Bat 1 – Elgoibar 4 (Nesk.)
Aloña Mendi 3 – Elgoibar 1 (Ale.)

SASKIBALOAIA

Zarautz 26 – Anbolo 16 (Kad.)

PILOTA

Arribillaga 22 – Carrillo 6 (Itziaroko txapelketa)
Arribillaga 22 – Orobiaurritia 5 (Berrizko txapelketa)

ESKUBALOAIA

Tecnifuelle Elg. 20 – Ereintza 16 (Sen. nesk.)
Arrate 21 – Cometel Elg. 24 (Jub. mut.)
IMH Elg. 35 – Aloña 15 (Kad. mut.)
Alcorta Elg. 29 – Bergara 40 (Sen. mut.)
Pneumax Elg. 23 – Jauja 25 (Kad. mut.)
Leizaran 16 – Iku Elg. 17 (Kad. nesk.)
Astigarraga Elg. 14 – Ereintza 20 (Inf. nesk.)
Bera Bera 14 – Aterpe Elg. 15 (Inf. nesk.)
Aloña 25 – Lili Elg. 22 (Inf. nesk.)
Bankoa Elg. 34 – Urrietako 33 (Inf. mut.)
Txarriduna Elg. 27 – Egia 31 (Inf. mut.)

AGENDA

SASKIBALOAIA (Kiroldegian)

Zapatua, 2

13:00 Anbolo – Añorga (Kad. nesk.)

Domeka, 3

12:00 Gabi Jatetxea – Allerru (Sen. mut.)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 3

10:00 Xagua – Zuzenbide (Sen. mut.)

FUTBOLA (Mintxetan)

Brixakua, 1

10:30 Elgoibar – Arrasate (Kad.)

12:15 Elgoibar – Intxaurren (Jub.)

17:00 Elgoibar – Segura (Nesk.)

Domeka, 9

12:00 Elgoibar – Ordizia (Inf.)

17:00 Haundi – Zamudio (3. maila)

Loiola, Matienako pilota txapelketako finalean

Matienako pilota txapelketako finala jokatu du Loiola pilotari elgoibartarrak, Renobales bikotearekin. Joan zen asteburuan 22-14 irabazi zuten Andreu eta Iruretaren kontra, eta finalerako txartela lortu zuten. Azken partida bihar izango da, arratsaldeko 17:00etan Matienako frontoian.

‘Los Gavilanes’ zarzuela entzun ahal izango da zuzenean maiatzaren 8an Herriko Antzokian

Masa Coral del Ensanche taldea azken urteotan beti etortzen da Herriko Antzokira

Zarzuela gustuko duenak ezin du galdu maiatzaren 8an Elgoibarren edukiko duen aukera. Izan ere, egun horretan, *Los Gavilanes* zarzuela zuzenean entzun ahal izango da Herriko Antzokian. Bilboko Masa Coral del Ensanche taldea azken urteotan beti etorri izan da Elgoibarrera, eta arrakasta handia lortu izan du. Emanaldia 21:30ean hasiko dute.

Maitasun kontuak

Probentza inguruko herri arratzenle batean gertatzen da kontaketa. Juan Indianoa, luzaroan Ameriketara ibili ondoren, etxera bueltatzen da; dirua egitera joan zen Juan Ameriketara. Harrera beroa egiten diote lagunak, eta anaiaren etxera eramaten dute. Lortutako diruarekin herria hobetzen lagunduko duela uste dute.

Etxera bueltatzean Adrianarekin ere to-



po egiten du; aspaldiko amodioa da Adriana, baina luzaroan banatuta egon eta gero, ozta-ozta ezagutzen dute elkar. Orduan Rosaura ezagutuko du Juanek; Adrianen alaba da, eta amaren gaztetako irudia da neska. Adriana ahaztu eta Rosauraz maiteminduko da Juan. Baina ez da erraza

izango neskaren maitasuna lortzea, haren ezkongaiak, Gustavok, ez dio bidea erraz egiten lagako.

Rosaura harrapatu nahi duen hegazti harrapari legez ikusiko dute herritarrek Juan, horregatik *Gabiraia (el gavilan)* gaitzizena jarriko diote.

Kiribil bere lagun animaliekin dator aurten Elgoibarko familietan euskara sustatzera



Elgoibarko Izarra elkarteak Kiribilka egitasmoa antolatzen duen seigarren urtea da aurtengoa, eta maiatzaren 8an jarriko dute martxan. Bi eta sei urteko haurrentzako eta euren gurasoentzako egitasmoa da, eta helburua familietan euskararen presentzia sustatzea da. Aurten erabiliko duten gaia animaliak izango dira.

Barixakuero hainbat animaliak egingo diote bisita Kiribili, eta eurekin batera jolas eta dantza egiteko aukera edukiko dute Elgoibarko Plaza handira joango diren haur eta gurasoek. Maiatzaren 8an hasi eta ekainaren 27ra arte iraungo du egitasmoak; eta uda ostean, irailaren 11n berriro bueltatuko da urriaren 9ra arte. Saiok 17:30ean hasiko dira, eta euria eginez gero saiok astebete atzeratuko dituzte.

Barixakuko saioez gain, kultura-ikus-kizunak ere egingo dituzte: udaberriari bat, eta udazkenean beste bat.

Akuarela tailerra hasiko dute astelehenean

Egur arte tailerrak antolatuta, datorren astelehenean, maiatzaren 4an, akuarela tailerra hasiko dute. Maiatzaren 27ra arte iraungo du ikastaroak: guztira 30 ordu izango dira. Bi orduko saioak izango dira, 18:30etik 20:30era, eta izena eman nahi duenak Egur arte tailerreko lokalera jo dezake, Agirre Plaza z/g helbidera.

Administrazioari buruzko ikastaroa egingo dute

Elgoibarko Kzgunek administrazio elektronikorako hastapeneko ikastaroa emango du, eta parte hartu nahi dutenek izena emateko epea zabalik daukate. Hamasei ordukoa izango da, eta doakoa. Helburua administrazioek eskaintzen dituzten zerbitzu elektronikoak ezagutzea da: jaiotza ziurtagiria lortzea, errenta aitortpena egitea eta laneko bitzita aurkitzea, besteak beste.

Auresku eta Soinu Zahar Txapelketako finalean Elgoibarko hamar dantzarik hartuko dute parte

Txapelketako azken kanporaketa Elgoibarren bertan jokatu dute joan den asteburuan

Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako ikasleek dantzan maila ona erakutsi zuten, beste behin ere, asteburuan. Auresku eta Soinu Zahar Txapelketa jokatu zuten Elgoibarren, eta emaitza onak lortu zituzten.

Zapatuan Auresku Txapelketan hartu zuten parte mutilek, eta domekan neskek abilezia erakutsi zuten Soinu Zahar Txapelketan. Txapelketako azken kanporaketak jokatu zituzten Elgoibarren, eta hamar dantzari elgoibartarrek final handirako pasea lortu zuten.

Finalak Erreterian

Mutileen finala maiatzaren 16an jokatu dute Erreterian, eta Elgoibartik Aitor Asenjok hartuko du parte.

Nesken finala, berriz, maiatzaren 17an izango da, eta Elgoibarko bedera-



tzik hartuko dute parte: A sailean –zappi eta hamaika urte bitartekoak– Alaitz Egaña, Leire Astigarra, Leire Urzainki eta Goizeder Etxeberria dantzariak. B saile-

an –hamaika eta hamabost urte bitartekoak– Arantxa Ferreirok, Ane Espillak, Nerea Badiolak, Andrea Arregik eta Iraitz Gonzalezek.

Liburutegiko idazlan eta marrazki lehiaketako sariak banatu dituzte



Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatu zuten joan den egunean, apirilaren 23an. Eguna aprobetxatuz, Elgoibarko Udal Liburutegiak XV. Idazlan eta Marrazki Lehiaketako sariak banatu zituen atzo. “Martxianoak Plaza Handian” izan da aurtengo lehiaketako gaia, eta guztira 489 lan aurkeztu dituzte. Horietatik 347 marrazkiak dira, eta 142, idazlanak. Irabazleen izenak, www.elgoiBARREN.net helbidean.

Apolinar Aldalurren erakusketa Kultur Etxean

Bihar, barixakua, Apolinar Aldalurren margoen erakusketa zabalduko dute Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Asteleheneetik zapatara 19:00etatik 21:00etara ikusi ahal izango dira margoak, eta domeketan 12:00etatik 14:00tara. Hilaren 17ra arte egongo da zabalik.

Itziariko baserri batean jaio zen Apolinar Aldalur, eta erreminta-makina alorrean hasi zen lanean: Sorailuzen lehendabizi, eta Elgoibarren gero. Erretiratu aurretik, 1994 urtean marrazketa artistikua ikasten hasi zen Eibarko marrazketa eskolan, Marina Barrena irakasle zuela.

Elgoibarren jarraitu zituen ikasketak, Javi Herrero irakasle zuela, eta ordutik olio-pinturak margotzen ditu. Zarautzen, Iruenen, Deban, Eibarren eta Ermuan jarri ditu erakusketak, besteak beste.

LANA

ESKAERA

- Zerbitzari edo beste edozein lanetarako prest nago.
☎ **617 005 381**
- Gizonezkoa lanerako prest. sukaldari laguntzaile, zerbitzari, garbitzaile, apal-betetzaille edo beste edozein lanetan. ☎ **664 055 503**
- Mutila lanerako prest, erakuntzan esperientziarekin..
☎ **669 285 475**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan.
☎ **638 344 377**
- Neska pertsona nagusiak zaintzeko edota portalak, tabernak eta lokalak garbitzeko prest.
☎ **699 609 190**
- Emakumeak zerbitzari gisa (esperientziarekin), haurrak edo nagusiak ziantzen edota garbiketa lanak egiteko prest.
☎ **617 056 828**
- Emakumea haur eta nagusiak zaintzeko eta portal eta lokalak garbitzeko prest. Eguneko edozein ordutan.
☎ **628 014 327**

- Gizona lanerako prest, garbiketa lanetan edo beste edozein lanetan. ☎ **666 215 426**
- Emakumea lanerako prest, tabernak garbitzen edo nagusiak zaintzen.
☎ **618 377 283**
- Emakumea lanerako prest, bai haurrak eta nagusiak zaintzen eta baita zerbitzari ere.
☎ **657 940 901**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko, nagusiak zaintzeko edo umeak zaintzeko prest.
☎ **699 813 826**

ESKAINZA

- Pertsona bat behar da egun bateko bilketa-lanak egiteko. ☎ **943 74 73 22**
- Zerbitzaria behar da esperientziarekin taberna batean lan egiteko. Elgoibarren. ☎ **652 778 210.**
- Pertsona bat behar da uztailen zehar klase partikularrak emateko goizez.
☎ **615 787 118**
- Gitarra. Flamenko edo elektrikoko klaseak Elgoibarren. Edozein estilotan inprobistazen ikasteko.
gurutaka@yahoo.es ☎ **630 588 745**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Etxea alokatzen da Gazteizen. Hiru logela, bi komun, egongela, bi terraza eta ganbara.
☎ **628 232 931**

BESTELAKOAK

- Jaka bakeroa topatu dut Errotaberri plazan. Urdin iluna, 5 tallakoa eta Galder N.
☎ **678 117 022**
- Bikoteentzako ohea, gau-mahaia, somierra, 135eko koltxoia eta 90eko oherako somier lamina berriak saltzen dira. Dena 160 euro eta mikrouhin-labea opari.
☎ **678 117 022**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira **BARREN**en eta astero *barren.iragarkilaburak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garaieak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak	Etxebizitzak/ Garaieak/ Motorra
Astebete : 5 euro	Astebete : 10 euro
2 aste : 8 euro	2 aste : 17 euro
3 aste : 10 euro	3 aste : 25 euro

Haurreskolak
www.haurreskolak.net

Irailan eta urrian hasteko matrikulazio epea zabalik

Maiatzaren 4tik 15era (biak barne)

Elgoibarko Haurreskola
943 742 141



• Zorionak, **Aimar**, maiatzaren 4an bost urte egingo dituzulako. Muxu asko denon partez.




• Zorionak, **Urko**, zure lehenbiziko urtebetetzear. Aitatz eta amatxoren partez.



• Zorionak, **Julene**, domekan hamar urte egingo dituzulako. Markel eta lbairen partez.



• Zorionak, **Hodei**, domekan urtetxo bat egingo dituzulako. Muxu asko familiakoen, eta, bereziki, Bidatzen partez.



• Bost mila muxu **Garazirentzat** hilaren 3an bost urte egingo dituelako. Etxeko partez.



• Zorionak, **Ama**, ezapatuan 28 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat Anadellaren partez.



• Zorionak, **txapeldun**, 29an egingo dituzun 9 urte eta horrenbesteko nota izan duzulako azken matematika azterketan.



• Zorionak, **Ane**, gure erregina, zapatuan sei urte egingo dituzulako. Etxekoen eta bereziki Malenen partez.



• Zorionak, **Aini eta Nere**, maiatzaren 3an zuen eguna izango delako. Muxu bana familiakoen partez.




• Zorionak, **bikote!** Maiatzaren 2an, zuen ezkontza egunean, oso ondo pasatuko dugu. Koadrilako partez.

OSPAKIZUNAK KINTOAK



1973an jaiotako mendaroez, 25. urtez egin dute kinto ospakizuna. Aurten, tamalez, Javier Zubiaurre (†) ez da euren artean egon, baina gogoan izan dute.



• Zorionak, **mafios!** Azkenean iritsi da zuen eguna eh! Danok elkartuko gera zuekin ospatzeko. Zuen lagun eta familiaren partez.



• Zorionak, **Ana**, apirilaren 28an hamar urte egin zenuelako. Muxu potolo bat familiakoen partez.

OHARRA

Maiatzetik aurrera agurrak kobratu egingo ditugu. **Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukotea edo handiagoa: 5 euro.** Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OKINDEGIAK

1 barixakua **FOTERO**
3 domeka **IBARRENEA**

FARMAZIAK
24 ORDUZ

- 1 Garitaonaindia-Bidasolo
- 2 Garitaonaindia-Bidasolo
- 3 Garitaonaindia-Bidasolo
- 4 Ibañez
- 5 Garitaonaindia-Bidasolo
- 6 Etxeberria (Santa Ana)
- 7 Fernandez
- 8 Yudego

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42


Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO
GEHIAGO:

Egin klik



www.elgoiBARREN.net



1 barixakua

Erakusketa
19:00 Margo erakusketa
Apolinar Aldalurren margoak egongo dira ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan, hilaren 17ra arte.

3 domeka

Meza
12:30 Santa Kurutz meza
Azkue-San Rokeko ermitan izango da Santa Kurutz eguneko meza. Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte.

4 astelehena

Tailerra
17:00 Komunikazio eta genero tailerra
Haizeak antolatuta, emakume-entzako tailerra izango da. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

6 eguaztena

Ikus-entzunezkoa
21:30 Granitozko mendietan eskalada
Morkaiko mendizale elkarteak antolatuta, Igor Mendizabalek eskaldari buruzko ikus-entzunezkoa eskainiko du. Musika Eskolako auditorioan.

8 barixakua

Ikuskizuna
17:30 Kiribilka
Kiribil eta bere lagunak Plaza Handira itzuliko dira. 2-6 urte bitarteko umeentzako eta euren gurasoentzako saioa.

Musika
21:30 Zarzuela
Masa Coral del Ensanche taldeak *Gavilanes* zarzuela ikuskizuna ekarriko du. Herriko Antzokian.

GAZTELEKUKO EKINTZAK

BARIXAKUA 1
Ibñita

ZAPATUA 2
Ibñita

DOMEKA 3
Ibñita

MARTITZENA 5
Internet tailerra 18:00

EGUAZTENA 6
Internet tailerra 18:00

EGUENA 7
Internet tailerra 18:00

LUDETEKAKO EKINTZAK

BARIXAKUA 1
Ibñita

ASTELEHENA 4
Bideo foruma 17:30

MARTITZENA 5
Hileko jolasa 16:30

EGUAZTENA 6
Karta jolasak 17:30

EGUAGENA 7
Eskulanak 17:30

«Cuscus»
30, eguena: 21:30

Frantzia, 2007. Zuz.: Abdel Kechiche. Akt.: Habib Boufaires, Marzouk Bouraoula. 151 min.
Afrikako iparraldeko familia bat Frantziako hegoaldean bizi da. Sil-

man banatuta dago, eta larri dabil kaiko lantokitik kaleratu zutenetik. Semeak Afrikara itzultzeko gomen-datuko dio. Baina berak jatetxe bat ireki nahi du.



Gure gomendioa

Gavilanes

Maiatzak 8, barixakua, Herriko Antzokian

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Kultura Sailak zarzuela emanaldia antolatu du. *Gavilanes* lana ikusteko aukera izango da Herriko Antzokian datorren barixakuan. Sarrerak aurrez erosi daitezke Kultura Sailean edota Gazte informazio gunean, 8,5 euroren truke. (Gazte Txartelarekin 6 euro).

Zerikasi

IKASTAROAK

Sorospen ikastaroa

Norentzat: 18 urtetik gorakoentzat
 Hizkuntza: Zehazteko
 Hasiera data: 2009-05-02
 Non: Azkoitin
 Izenemate bukaera: Kontsultatu 607 512 657 (Ibon)

Akuarela

Norentzat: Interesatuentzat
 Hizkuntza: Gaztekeraz
 Hasiera data: 2009-05-04
 Non: Elgoibarren
 Izenematea: Plaza Txikiko Egur arte eskolaren lokalean

Excel aurreratua

Norentzat: Profesionalentzako
 Hizkuntza: Gaztekeraz
 Hasiera data: 2009-05-25
 Non: Elgoibarren
 Izena emateko: Maiatzak 25

Word aurreratua

Norentzat: Woerd programa sakondu nahi dutenentzat
 Hizkuntza: Gaztekeraz
 Hasiera data: 2009-06-08
 Non: Elgoibarren
 Izena emateko: Ekainak 8

Acces aurreratua

Norentzat: Datu baseekin lan egiten dutenentzat
 Hizkuntza: Gaztekeraz
 Hasiera data: 2009-07-06
 Non: Elgoibarren
 Izena emateko: Uztailak 6

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

«La mujer rubia»

5, martitzena: 21:30
 7, eguena: 21:30

Argentina, 2008. Zuz.: Lucrecia Martel. Akt.: Maria Onetto, Claudia Cantero, Cesar Bordon, Daniel Genoud, Guillermo Arengo. 100 min. Emakume batek, gidatzen ari dela, uste-kabeen zerbait edo norbait harrapatu du. Handik egun batzuetara, senarrari kontatuko dio errepidean norbait hil due-

la. Bide bera egitera joango dira, baina errepidean soilik hildako txakur bat dago. Poliziarekin harremanak dituzten lagun batzuek esango diete egun horietan ez dela istripurik izan. Horrenbestez, lasaitasuna itzuliko da haien bizitzara. Baina aurkikuntza ilun batek guztia astinduko du berriz ere.

Gure berbak

Hiztegixa (2)

Elgoibarko euskeran (eta baita Mendarokuan ere) "nahasketa haundia" dauala esan izan dogu beti, eta halaxe da: bateko eta besteko eragiñak nabaritzen dira: batetik Mendebaldeko hizkerena, bizkaiera ere esan izan jakonana; bestetik, Erdialdeko hizkerena, gipuzkeria ere esan izan jakonana; zenbaitetan, bi aldietako formak darabiguz gure eguneroko jardunian, eta arazo teoriko askorik gabe, gaiñera: ez jaku ardura "nungua" dan hori berbiori, erabili egitten dogu, eta kitto! Halaxe bihar, gaiñera.

Hala ere, hizkuntza-kontuetan ibiltzen geranok nunbaitetik bizi bihar, eta esplikazio minimo batzuk ematia ere egokitzen jatala uste dot.

Mendebaldeko hizkera garbixak dira Eibarkua eta Plazentziakua: Mendebaldeko hizkeren ezaugarri gehixenak ditue, eta Erdialdeko hizkerenak, gitxi. Hizkera hórretara hurrerutzen gaittuen berba batzuk ekarriz hasiko dogu gure ibilbidia, guk erabiltzen ditugun Mendebaldeko berba batzuk:

- ♦ *Abadia (eta ez apaiza)*
- ♦ *Armozua (eta ez gosarixa)*
- ♦ *Batu (eta ez bildu)*
- ♦ *Etorri ei da (eta ez etorri omen/emen da)*
- ♦ *Txarri-kortia (eta ez ikuillua/ukuillua)*
- ♦ *Odolostia (eta ez odolkixa)*
- ♦ *Ortua (eta ez baratzia)*
- ♦ *Biharra ere erabiltzen da (baita lana ere)*
- ♦ *Berakatza (eta ez baraturixa)*
- ♦ *Higuiña (eta ez nazkia)*
- ♦ *Berbia (hitza-rekin batera)*
- ♦ *Gatzatua (eta ez mamixa)*
- ♦ *Apurtu (bai eta hausi ere)*
- ♦ *Eskumia (bai eta zenbaitetan eskubixa ere)*
- ♦ *Eta abar.*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1955

Aste honetako erretratu zaharra 1955eko Urteberri Egunean aterata dago. Gaur egun bezala, orduan ere urteko lehenengo egunean mendira joateko ohitura zegoen, eta halaxe egin zuten argazkian agertzen direnek. Erretratu horretan Elgoibar eta Eibarko jendea agertzen da, eta BARRENEk ezin izan ditu denak identifikatu. Elgoibartarren izenak dituzue jarraian. Hala ere, litekeena da norbait faltan egotea, herritar askoren eskuetatik pasatu arren argazkia.

Goian: 1. Basilio (†), 2. Osoro (†), 3. Upai (†), 4. Mikel Gorostiza, 9. Roke Gabilondo (†), 14. Elustondo, 15. Murua, 16. Santi Txurruka.

Behean: 25. Rafa Etxaniz (†), 26. Jose Juaristi (†), 27. Munuera (†), 28. Mari-vi Unzueta, 29. Mari Carmen Txurruka.






ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENEn argitaratzeko
erretratu zaharrak baldin badituzu,
eskertuko genizuke gure erredakziora ekartzea.
Nafarroa Plaza 2, behea. 943 744 112 (Ainhoa)

ELGOIBARKO INSTITUTUA
MEKA GLHBI

ATE IREKIAK JAR DUNALDIA



“LOS GAVILANES”

Zartzuela
Orkestra zuzenean



Maiatzaren 8an, 21:30ean
Herriko Antzokian



Elgoibarko Udala
Kultura saia



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Euzko Jaurlaritza

